

Concurso "Comète": la historia de Ferdinand

El matrimonio Ferdinand de Greef y Elvire Berlément pertenecía a una familia belga exiliada en Anglet y entraron como colaboradores en la Red Comète. Ferdinand trabajaba para los alemanes en el Ayuntamiento de Anglet y todo el mundo creía que era pro-nazi, una estupenda tapadera para poder ayudar en la evacuación de aliados. En una ocasión, los nazis localizaron al contrabandista Florentino Goikoetxea, que también participaba en la red, le dispararon y le detuvieron. Pero Florentino se las arregló para esconder antes unos papeles que comprometían a Elvire. Ésta, emocionada ante el gesto de Florentino, pidió a su marido Ferdinand que hiciera todo lo posible por salvar al contrabandista. Ferdinand se disfrazó de jefe de la Gestapo, con documentación falsa; acudió al hospital donde Florentino estaba bajo arresto y, con una ambulancia del Ayuntamiento de Anglet, se lo llevó de allí, poniéndolo a salvo. Arriesgó su vida por salvar a Florentino.



Ponte en la piel de Ferdinand, cuando disfrazado de la Gestapo, rescató a Florentino. Y escribe una carta a tu hermano contándole cómo viviste el episodio y cuáles fueron tus emociones. El equipo de las tertulias literarias de Oiasso premiará la mejor respuesta, que se llevará el DVD "Apocalipsis: la Segunda Guerra Mundial".

Angelu, 1945ko abuztuaren 1a

Anaia maitea,

Aspaldi elkarren berri izan ez dugun arren, aukera hau aprobetxatu nahiko nuke nire azken berriak kontatzeko, baita zureak jasotzeko ere. Urtebete igaro da dagoeneko azkenekoz elkar ikusi genuenetik, eta espero dut etxeko guztiok ondo egotea.

Dakizunez, Angeluko udaletxean lan egin dut azkeneko hiru urteotan nire hizkuntzen ezagupenei esker. Alemaniarrak Euskal Herrira etorri zirenetik, joan-etorri ugariak izan dira hemen, atzerritar asko bizi dira gure artean eta nire zerbitzuak garrantzitsuak bilakatu dira haientzat. Herritar batzuek nazien kolaboratzailea naizela pentsatzera ere iritsi dira, eta, nik, alde batetik, tentu handiz ibili behar izan dut horiekin, eta, bestetik, egoera hori baliatu dut alemaniarren konfiantza neureganatzeko (ez da erraza izan, ez pentsa!).

Bitartean, Elvire, nire emaztea eta biok, herri honen askatasun eta duintasuna arriskuan ikusita, erresistentziaren alde hasi gara lanean eta hemengo lagun handiekin batera, borondatezko sare bat osatu dugu, horretarako geure etxea ere eskainita.

Egia esan, oso une gogorak bizi berri ditut eta horien berri ematera natorkizu. Izan ere, joan den astean jakin nuen Florentino Goikoetxea, Ingalaterrako pilotuak muga zeharkatzen trebezia handiz laguntzen zituen mugalari aparta sarekada batean erori eta zaurituta Baionako ospitalera eraman zutela. Galdetegi gogorak egin zizkioten, baina, hala ere, bere gain hartu zuen ekintzen zama guztia.

Egun latzak pasatu genituen, izan ere, nire Elvire konprometitzeko moduko paper batzuk bere esku zituen eta, ez dakit nola, baina ezkutatu ahal izan zituen atxilotuta izan aurretik. Guretzat, eta, Elvirerentzat bereziki, oso keinu garrantzitsu eta hunkigarria izan zen, eta, zerbait egin beharrean sentitu gara biok.

Hala, nire kontaktuak baliatuta, dokumentazio faltsua eskuratu nuen eta GESTAPOko nagusi baten uniformeak jantzita, Angeluko Udaleko anbulantzia hartu eta ospitalerantz abiatu nintzen joan den asteartean, sareko beste kide batek lagunduta. Eguerdian abiatu ginen, ordu horretan ez baita hainbeste soldadurik ibiltzen errepideak kontrolatzen, eta, bigarren mailako errepideei jarraituz ospitaleko atera iritsi ginen 12:50ean. Uztailean gaude eta bero handia zegoen.

Atean, guardian zegoen soldaduak agurtu egin gintuen eta guk ere hala egin genuen, barruko urduritasunari nola edo hala eutsiz. Ospitaleko pasilloetan erizain bakar batzuekin topo egin genuen, baina guk tente-tente jarraitu genuen aurrera. Erizainek Florentino sendatu gabe zegoela zioten eta hantxe uzteko, baina guk, gogor plantak eginez, ez genien kasurik egin eta aginduak ematen jarraitu genuen alemanez. Bagenekien Florentino azkeneko solairuan zeukatela eta ate ondoan soldadu bakarra zegoela zelatan.

Bihotza bularrean sentitzen nuen taup-taup, baina aurrera egin beharra neukan, nahitaez. Arin-arin mugitu eta Florentinoren gelan sartu ginen. Han zegoen erizainak nire uniformeak ikusita, ezer esan gabe pasatzen utzi eta nik emandako aginduak zintzoki jarraitu zituen: Florentinori janzten lagundu eta prest jarri zuen guk anbulantzian eramateko. Bitartean, ospitaleko zuzendariari (Mr. Petriac) agintarien oso ondo prestatutako agiri faltsu bat erakutsi nion, bere baimena eman ziezadan, eta, hark onartu egin zuen.

Hala, azkar-azkar anbulantzian sartu genuen Florentino eta alde egin genuen. Ez dakit Jainkoaren laguntza edo patuarena izan ote zen, baina handik alde egitea lortu genuen arazorik gabe. Gure lagun min baten etxera eramanez nuen Florentino, sendatutakoan muga zeharkatu eta bere etxera joan aurretik. Han, bihotz-bihotzez eskertu nion nire emaztearen alde egindakoa. Egia esan, ez dugu inoiz ahaztuko.

Esango dizut kostatzen zegoen nire onera etorri eta lasaitzea, baina handik bi orduetara alemaniarren artean nenbilen berriz Angeluko udaletxean. Ez nuke pentsatu ere egin nahi zer egingo zidaten jakinez gero.

Dena den, tentuz ibili beharko dut hemendik aurrera, sarea arriskutan jarri nahi ez badut behintzat.

Beno, anaia, aspaldian idatzi gabe nengoen eta luzatu naiz pixka bat nire kontakizunetan. Orain zure berriak jasotzea espero dut. Badakit elkarrengandik urrun samar bizi garela, baina, nire bihotzean eta nire gogoan eramaten zaitut.

Zure erantzuna laster jasoko dudalakoan, jaso ezazu besarkada bero bat.

Zure anaia,

Ferdinand

Maria Paz Martin Orio